

MATER DOLOROSA LA IDEA DE ESPAÑA EN EL SIGLO XIX

José Alvarez Junco
Taurus, Madril, 2001

Nazionalismoa modan dago, hemen eta edonon. Partikularzki 1989tik aurrera (Berlingo harresiaren lurreratzea) ez da izango munduan hura baino gizarte-mugimendu indartsuagorik, ondorio politiko larriagorik paratzen duenik. Ez hemen soilik: bloke komunista ohia- ren baitan eztanda abertzalea ez da izan, inola ere, ahuntzaren gauerdiko eztula; ez letorke gaizki gogoratzea, bestalde, Sadam Hussein alderdi nazionalista klasiko eta tipiko baten buru dela (Baas: Arabiarren Pizkundeko Alderdi Sozialista), inguru hartako politikaren protagonista gehienak bezala (Arafat, Sharon, Peres...); Estatu Batuei buruz, zer esango dugu: lehendik ere ez bazen makala sukar abertzalea, pasa den urteko eraso terroristak marka guztiak hautsi ditu eta *nazioaren patua* da, agian inoiz baino gehiago, hango politika eta kulturaren ardatz bakarra, non eta badirudien (telebistaren arabera) estatubatuarrek goizetik gauera beren ereserkia kantatzen eta beren ikurrina ohoratzen ematen dutela eguna.

Eta Espainian? Gogoratu beharrik al dago *euskal gaia* deituak komunikabide eta politikagintzan betetzen duen lekua, beti klabe nazionalistan? *Perejil* uhartearen aferak ez ote txiki utzi chauvinismoaz esan daitekeen oro?

Egoera hori Espainiako historiografiarekin erkatzea paradoxikoa gertatzen da, zinez. Izan ere, ez da hainbeste denbora Espainiako unibertsitata-

teetan nazionalismoa *gainditzeko zorian* (edo guztiz gaindituta) zegoen gizarte-fenomeno gisa aurkezten zela, modernitate demokratikoaren aurrerabide saihestezinaren ondorioz. Tes- tuinguru horretan ikerketa ia guztiak euskal/katalan/galiziar nazionalismoa argitzera bideratuta zeuden eta, neurri handi batean, haien *gezurrak* salatzera. Ikerketa akademikoez ari naiz, beraietan sarri agertzen zen asmo *desmitifikatzaileak* lotura politiko nabi- riak bezeuzkan ere. Horrela ikusi dugu pasatzen liburua liburuaren ondotik, artikulua artikuluen gain. Gaur egun ere horrela bizi gara, agian inoiz baino gehiago. Era berean, *nazionalismoa*- ren kontrako epai morala inoiz baino esplizituago bihurtu da; inoiz baino arruntago bihurtu da nazionalismoaren *asmakeriak* salatzea.

Nazionalismo espainolarenak ere? Hortxe dago paradoxa: gaiaz ardura- tuta dagoenak ez duela, nazionalis- moari buruzko liburu erauntsiaren bai- tan, ia ezer ez aurkituko espainiar na- zionalismoaz. Absurdua dirudiena egu- neroko ogia izan dugu azken hogeita hamar urteotan, hots, nazionalismo espainolik ez dagoela pentsatzea. Ebidentzia ooren aurka nazionalismo espainolik aipatzea ia-ia tabu bat izan da eta, neurri batean, da.

Tabu horren aurka hasi dira ahots batzuk altxatzen, adibidez, Inman Fox, Javier Varela, Sisinio Pérez Garzón, Juan Pablo Fusi edo gaur bereziki

aipatuko duguna, José Alvarez Junco. Badirudi aurrerantzean arruntagoa izango dela nazionalismoaz mintzatzean bere aldaki espainola ere aipatzea, eta badirudi ere ikerketa akademiko ireki eta eztabaidagarriak irakurtzeko aukera izango dela, eta ez kasuko egilearen irizpide etikopolitikoen zuritze gutxi-asko abilak.

Zeren hori baita, hain zuzen ere, liburu honetan bereziki azpimarratzea: bere jite akademikoa, hitzaren zentzurik onenean. XIX. mendeko Espainiari buruzko ikerketa zehatz eta aberats baten aurrean gaude; ikerketa kritikoa, hots, datuetan aztarrika interpretazio baten bila abiatzen dena, epai moralak (ahal den neurrian) beste mota bateko tenoreetarako uzten direlarik. Epaitzea baino ulertzea baita helburu.

Tesi nagusia, gure begietan, hauxe da: Napoleonen inbasioaren ondorioz, eta hark deskateatu zuen prozesu iraultzailearen eraginez, Espainiak nazionalismo liberal goiztiar bat ezagutu zuen; maila intelektualean bederen, XIX. mende bukaerako espainiar nazionalismoa guztiz garatua zegoen: “La situación española, al acercarse el final del siglo XIX, puede resumirse en una frase: los intelectuales habían hecho sus deberes. Como en cualquiera de las viejas monarquías europeas que, en el tránsito a la modernidad, intentaban convertirse en naciones, las élites habían conseguido completar, o casi completar, la construcción de todo un edificio cultural que giraba en torno al pasado español, al arte español o a la ciencia española. [...] Los mitos nacionales estaban contruidos.” (271. or.). Baina eraikuntza intelektual horren arrakasta aski mugatua izan zen. Zergatik? Erantzuna, Alvarez-en baitan, ez da guztiz argia. Alde batetik mito berri horien gehiegizko

artifizialtasuna azpimarratzen da (“una combinación de elementos culturales poco creíble o directamente incomprendible para una gran parte de la población” 277. or.) baina, bestetik, Estatu liberalaren ahuldadea aipatzen da (“la tarea de construcción cultural realizada por las élites intelectuales tenía que ser completada por el Estado [...] el Estado realizó esta tarea con dudas y ambigüedades.” 278-279. or.). Ez dugu bikoiztasun horren itenbide garbirik aurkitzen; egilea bera da arazoaren formulatzailea (bereziki 565. orrialdean), baina erantzuna barik galdera paratzen du. Hobe horrela, araz. Izan ere, hauxe da dakiguna Alvarez-en arabera: arazoak arazo, estatu espainiarra ez dela desegin, baina nekez esan daitekeela XIX. mendeko nazionalizazio-prozesua arrakastatsua izan zenik. Eztabaidak zabalik dirau.

Hainbat elementu gehiago ere aipatzen da; nagusia, katolikotasunaren pisu erabakigarria, nazioaren garapen modernoan oztopo salbaezin. Gai horri dedikatzen zaizkio liburuaren pasarterik gogoangarriarenak, gure ustetan. Baita ere kanpo-etsai indartsu baten gabezia (Frantziar edota Alemaniar ez bezala). Edo federalismoaren ahulezia historikoa. Eta abar.

Liburuaren azken atala da, gure iritziz, eztabaidagarriena. Hauxe da mende bateko ibilbidearen ondorioa, Alvarez-en aburuz: “Lo que significa que el nacionalismo español [ha] encontrado, por fin, el reemplazo para aquel objetivo que cien años antes se plantearon los liberales gaditanos y que obstáculos posteriores habían obligado a abandonar: la regeneración del país, la europeización, en definitiva, la modernización. Sólo había un problema con esta misión al fin hallada: que había llegado tarde.” (593. or.). 1898ko krisiaz eta berorren ondorioez ari da.

Alegia, elite espainiarrek mende bat behar izan dute benetako proiektu nazional eta integratzaile bat sortzeko, sektore katolikoak ere erakarriz, baina ordurako berandu da lehiatzaile berriak sortu direlako, nagusiki, katalan eta euskal nazionalismoak. Gure irudiko, analisi horrek ez du kontuan hartzen laurogeita-hemezortzitarren nazionalismoaren ezaugarririk behi-ena: katalana, euskara eta gailegoa zokoratzeko, itotzeko eta desagerrazteko asmoa. Alvarez-en arabera, berriz, "El problema específicamente español no fue tanto que el país estuviera atrasado como que se desarrolló de forma desigual; lo que produjo, naturalmente, un proceso de modernización cultural también desequilibrado." (596. or.). Eta hori, dudarik gabe, egia da, baina ez egia osoa, katalanek, adibidez, nekez asumituko luke-

telako Espainaren kultur modernizazioak beren hizkuntza desagerraraztea. Kontu horrek merezi zuen aipameneen bat.

Azken orrietan, sintomatikoki, berriro ere Estatuaren ahuldadea aipatzen da. Eta berarekin batera, nazionalismo periferiko leihakorrek eragindako *españolismo errektiboa*. XX. mendeari buruzko hausnarketa iradokor baina laburregi batzuk, eta bukatzen da. Irakurlea zerbait gehiagoren esperoan utziz, apika.

Bi hitzetan, liburu guztiz gomendagarria: zehatza, aberatsa, ausarta. Ez du aurrekaririk espainiar historiografian. Eta lehen saio bat izateko oso goian uzten du langa.

Pruden Gartzia

